
Atarikoa¹

Hona hemen, irakurle, Pello Salaburu maisu handiari eskaintzen diogun esker on liburua. Hamaika lan bildu ditugu, hainbat alorretakoak: euskararen lexikografia, terminologia, historia, gramatika, corpus ikerketa eta baita euskara eta gaztelaniaren prozesamenduari buruzkoak ere. Askotarikoa izan baita, zalantza gabe, Salaburuk utzi digun uzta oparoa; hizkuntzalaritzan, euskararen fonologian, gramatikan, lexikografian aitzindari izan dugu, gramatika sortzailearen esparruan lehenik, gero corpus eta hiztegi digitalak sortuaz, gure hizkuntza hobeto ezagutzeko, zaintzeko eta erabiltzeko behar ditugun XXI. mendeko lanabesak eraikiaz eta gizartean zabalduaz. Salaburu-
ren uzta ikerketaz eta akademiak harago zabaltzen da, gure gizarteak ezagutu dituen hainbat erronkatarara. Pello ez da inoiz uzkurto gogoeta egin behar izan denean, bakegintzaren bideari dagokiola edo unibertsitatearen etorkizunari, beldur gabe agertu izan zaigu beti plazan, argi mintzatuaz, zuzen, hitzen kiribiletan sekula bere burua ezkutatu gabe.

Liburu honetan parte hartzen dugun guztiok baditugu motiboak soberan Salabururi eskerrak emateko, baina neuk hartu dut liburua argitaratzeko ardura, eta abagunea hartuko dut neure eskerrak emateko; zilegi bekit bada ñabardura pertsonalak ekartzea hona. Askotan azaldu dudana legez, Pello Salaburu agertu zen sintaxiko irakasle karrerako (orain gradua deritzona) azken urtean eta han berpiztu zen nire sintaxi sortzailerako zaletasuna (Patxi Goenagak piztu zuena, bere *Gramatika Bideetan* liburuarekin). Salaburu MITeko hizkuntzalaritza sailean egonaldia eginda zetorren zuzenean gurera eta, nire zaletasuna ikusita, berak galdetu zidan ea gustatuko litzaidakeen Bostongo MITera tesia egitera joatea, amestera ere ausartzen ez nintzena. Ez dut gogoan hau inoiz idatzi izana, Salaburu maisu handiari zor diodan laguntza eskertzeko: nire etengabeko eskerrak, Pello, bidean erakutsi didazun laguntza guztiagatik, ez baita gutxi izan.

Hamaika lan bildu ditugu Pello Salaburuaren omenez: terminologiaren alorretik, lege hizkerari buruzko lan bi, batak EHUko *Hiztegi Juridikoaren* sorrera eta eraketa azaltzen digu, Alberdi irakaslearen eskutik eta besteak terminologia juridikoak euskaraz izan duen ibilbide historikoa ezagutarazten digu, Azkarate eta Lopez Basaguren adituen eskuetatik. Hiztegi gintzaren alorrean, Lindemann eta San Vicentek Larramendiren neologismoei begiratzen diete egungo baliabide lexikoen ikuspegitik, eta Landak eta Sarasolak beharrezkoa dugun euskal hiztegi konbinatorial baterako lehen urratsak aurkezten dizkigute. Goenagak euskaldunok euskararen inguruan ditugun hainbat *uste* oker eztabaidatzen ditu eta Makazagak bere tesi lanak gogoan hartuta *benetako* euskara-

¹ Eskerrak eman nahi dizkiogu Eusko Jaurlaritzari ikerketarako emandako laguntzagatik (IT1169-19).

ren ikerketari buruzko gogoeta pertsonala egiten digu. Gramatikagintza garaikidearen isla, Berrok eta Fernandezek euskararen argumentu egituren gauzatze ezberdinak dakarzkigute, gurean oraindik oso ikertua ez den kontua. Egungo corpus hizkuntzalaritzaren erakusgarri, Pastorrek euskararen hitzorden kanonikoari buruz egindako ikerketa berria biltzen dugu lan sorta honetan. Azkenik, gramatikaren prozesamenduari buruzko hiru lan: lehena, Egusquiza eta Zawiszewski adituen eskutik, gaztelaniazko korreferentzia harremanen izaerari buruzkoa, Salaburuk hainbeste jorratu zuen *Binding Theory* haren ondorengo garaikidea; bigarrena, Andeetako gaztelaniak eta penintsulakoak perpausaren ordena kanoniko bera ala ezberdina ote duten galdetzen duena, Yozak, Erdociak eta Lakak elkarlanean burutua, eta Salaburuk Cuzcoko hiriarekin izan duen harreman bereziaren oroigarri; hirugarrena, Yetano, Duñabeitia eta Laka egile dituen, euskararen erlatibozko perpaus postnominalen prozesamenduaz, Salaburuk euskararen ikerketa modernoa bultzatzeko egin dituen ahalegin guztien oroigarri. Hiru hizkuntza biltzen dira liburu honetan bildu ditugun artikuluetan: euskara, gaztelania eta ingelesa. Izan ere, ez dugu ahaztu nahi Salaburuk noranahikoa goa egin duela gure hizkuntza txikia, inguruan diren hizkuntza handietan igeri eginaz, beste bideirik ez baitago izaten jarraituko badugu.

Bihoaz Lizardi poetaren hitzak zuregana, Pello, egin duzun lanaren laburbiltzerik egokiena baitira: *zuk, hizkuntza larreakoa nahi duzu ere noranahikoa, jakite-hegoek igoa, soina zahar, berri gogoa, azal orizta, muin betirakoa.*

ITZIAR LAKA

Lankide eta adiskide leialari

1

Urteak ongi beteta
iritsi zaik erretreta,
egindakoaren ordaina duk
ongi merezita.
Elkarri esku emanda
egonarren nekatuta,
eginen diagu atzera berriz
egin behar bada.

**Larai lailai, larai lailai
elkarri esku emanda.
Larai lailai, larai lailai
egin behar bada.**

2

Adiskide ta lankide
ez dituk baliokide.
Oraingo honetan, orde, biak
ditiagu hizpide.
Aspaldion gu lankide
eta betiko adiskide:
harro sentitzeko eran gaituk
horixe, hala fede.

**Larai lailai, larai lailai
lankide ohi ta adiskide
Larai lailai, larai lailai
Horixe, hala fede.**

3

Aurrekoaren oinatzak
Estaltzen dizkik lokatzak.
Askotan izaten ohi dituk
Zabu ta balantzak.
Haizearen noraezak
sortzen zizkiguk zalantzak.
Norabait joan nahi eta ezin
holaxe gabiltzak.

**Larai lailai, larai lailai
Zabu ta balantzak.
Larai lailai, larai lailai
Holaxe gabiltzak.**

4

Eskerrak hiri eman nahirik
norbaitek gu bildu gaitik.
E-Hatxe -U ta euskara zaudek
higan itsatsirik.
Hiru hizki ta zenbat hitz!
Guk ez behar gehiagorik.
Eskerrik asko, lagun jatorra,
hire lanagatik!

**Larai lailai, larai lailai
elkarri esku emanda.
Larai lailai, larai lailai
hire lanagatik**

Pello Salabururi eskainitako bertsoak (Bilbon, 2019-12-5)

2019ko abenduaren 5ean Bizkaia Aretoko de Rijk liburutegian Pello Salabururi egindako omenaldian parte hartu genuen adiskideak.



Argazkia: Mitxi. UPV/EHU

Atzeko lerroan: Maitena Etxebarria, Alberto Lopez Basaguren, Jesus Mari Makazaga, David Lindemann, Josu Landa, Patxi Goenaga.

Aurreko lerroan: Miren Azkarate, Xabier Alberdi, Beatriz Fernandez, Pello Salaburu, Itziar Laka.



Omenaldi egunean Patxi Goenagak Pellori opari eman zion akuarelaren erreproduzkoa